



Nerearen musika jostailua. El juguete de música de Nerea

Aprende euskera con tus hijos y este cuento. Accede a la unidad didáctica y el

audiocuento en: <http://www.sorginatxirulina.eus/nerearen-jostailua>

Tilin-talan zebilen Nerea eta oso pozik gainera.

Aurreko astean **gaixorik** ibili zen eta ezin izan zen parkera joan baina goiz horretan hobeto altxatu zen.

Zelako gogoia zeukan Nereak bere lagunak ikusteko! Gabonetan oso jostailu berezi bat ekarri zioten Mari Domingik eta Olentzerok eta lagunei erakusteko irrikitan zegoen. Jostailu hori ez zen kotxe bat, ezta panpin bat ezta puzzle bat ere. Ez. Ekarrirako jostailua abestiak egiteko zen!

Nerea se **balanceaba** en el columpio muy contenta.

La semana anterior había estado **enferma** y no pudo ir al parque, pero se había levantado mejor. ¡**Qué ganas** tenía Nerea de ver a sus amigos y de enseñarles el juguete tan especial que le habían traído Mari Domingi y Olentzero!

Ese juguete no era ni un coche, ni una muñeca, ni un puzzle. No.

¡El juguete servía para hacer canciones!

Nerea eta lagunak **txirristan** jolasten ari ziren eta bere lagun Amaia, betiko moduan, **zabuan** zebilen **kulunkatzen** bere aitaren laguntzarekin.

—Lagunok, begira zer jostailu berria dudan! Tresna honek musika jartzen du eta gero guk **horren gainean** abestiak asmatu ahal ditugu. Oso dibertigarria da! Probatu nahi duzue?

—Noski, Nerea. Goazen abestera!

Nerea y sus amigos jugaban en el **tobogán** mientras Amaia se **balanceaba** en el **columpio** con la ayuda de su padre.

—¡Amigos! ¡Mirad qué juguete nuevo tengo! Sirve para poner música y **encima de** esa música podemos inventarnos canciones. ¡Es muy divertido! ¿Queréis probarlo?

—¡Claro, Nerea! ¡Vamos a cantar!

Jostailua **martxan jarri** zuen Nereak eta musika base bat entzuten hasi ziren eta horren gainean abestu zuten:

—Hemen gaude, parkean jolasten

—Nerearen jostailu berria... probatzen

—**Plista-plasta.. dinbi-danba...** egiten

La-la-la-la, la-la-la-la

La-la-la-la, la-la-la-la

Nerea **encendió** el juguete y empezaron a escuchar una base musical, y sobre ella cantaron:

—Aquí estamos, jugando el parque



—Probando el nuevo juguete de Nerea

—¡Chap, chap! Zas!

Bat-batean, kolpe bat entzun zen.

—Ahhh.. Amaia! Erori zaizu jostailua eta apurtu egin da! — esan zuen **negarrez** Nereak.

—Barkatu, Nerea. Eskutik irristatu zait nahi gabe.

—Eta orain ezin ditugu abestiak egin— eta malkoak agertu ziren Nerearen **masailetan** behera.

De pronto se escuchó un golpe.

—¡Amaia! ¡Se te ha caído el juguete y lo has roto! — dijo **llorando** Nerea.

—Perdona, Nerea. Se me ha **resbalado** de las manos **sin querer**.

—¡Ahora ya no podemos hacer más canciones!— apareciendo lágrimas en las **mejillas** de Nerea

Amaiaren aita hurbildu zen umeen taldera eta esan zioten:

—Lasai, laztanak. Jostailua apurtu da baina abestiak egiten jarraitu ahal duzue.

—Baina orain ez daukagu musika!

—Nerea, horretarako ez duzue jostailu bat behar. **Gorputza** eta **ahotsarekin** ere egin ahal duzue!

—Nola??

—Begira.

El padre de Amaia se acercó y les dijo a los niños.

—Tranquilos. El juguete se ha roto pero podéis seguir haciendo canciones.

—¡Pero ahora no tenemos música!

—Nerea, para eso no hace falta tener un juguete, también lo podéis hacer con el **cuerpo** y la **voz**.

—¿¿Cómo??

—Mirad

Eta horrela musika base bat sortzen hasi ziren.

Ume batek erritmo bat markatu zuen **txaloka**.

Amaiak bularrean kolpeak emateari ekin zion.

Beste batek ahotsarekin soinu bat asmatu zuen.

Y así empezaron a crear una base musical.

Un niño marcó un ritmo dando **palmadas**.

Amaia empezó a dar golpes con las manos en el **pecho**.

Otro se inventó un sonido con la voz.



—Hau bai musika ona! — esan zuen Nereak eta abesten hasi zen.

Ze ondo gauden,

Jolasten hemen

Ahotsa afinatu

Gorputza mugitu

Denok dantzatzera

— ¡Esto sí que es música! — dijo Nerea, y empezó a cantar:

Qué bien estamos,

Aquí jugando

Afina tu voz,

Mueve tu cuerpo

¡Y vamos a bailar!

Egun horretatik aurrera ez zuten jostailu gehiago parkera eraman eta gaur egun, ez da inor musika jostailuaz gogoratzen.

Musika maitatu eta egin!

A partir de ese día nadie más volvió a llevar un juguete al parque. Y **hoy** ya nadie se acuerda

del juguete de música.

¡Ama la música y crea!